

BALIO PROPOSAMENA


Guk saltzen dugun produktua kontakturik gabe kargatzen duen kargadore bat da eta produktuaren izena "Cable-free conection" izango da

Produktu hau teknologia bere egunerokoan behar dutenei zuzenduta dago, ordenagailua sarritan erabiltzen dutenei hain zuzen ere. Onura edota abantaila asko eskainiko dizkigu: kargatzeko erraztasuna, erosotasuna, kableetako gastuaren aurrezpena...

Ordenagailua kargatzeko kablerik ez dugunez erabiliko, nahi dugun lekuan erabili ahal izango dugu. Gainera, produktu honek, kable bidezko karga baino azkarrago bat bermatuko digu.

Produktu hau erosten duten bezeroei erraztasuna eskaintzen diegu. Gure produktua erabiltzen dutenek ez dira kableetaz arduratu beharko eta, gainera, gure produktua erabiltzen ari diren bitartean etengabe erabili ahalko dute haien ordenagailua.

Produktua hasiera batean bakarrik internetez salduko dugu, mundu osorako bidalketa burutuz. Ondoren, Espainia mailako hurrengo puntuetan salduko dira, irekiko ditugun gure dendetan:



Ekoiztuko dugun produktuaren diseinua modernoa izango da, Wi-fi aparatu baten antzekoa, guztiz eramangarria eta pisu gutxikoa. Guk sortutako produktua aurrerapen handiak ekarriko ditu bai lan egiteko eta ikasteko giroan bai eguneroko bizitzan.



“Cable-free connection” baten prezioa, hasiera batean, 200 eurokoa izango da, prezio oso merkea dena produktu honek dakarren abantailak kontuan hartuz. Gainera, gure produktuaren kalitatea ezinhobea izango da 20 urte baino gehiagoz egon ahal izango baita funtzionamenduan.

Cable-free connection”-a, esan bezala, ordenagailuak bere egunerokoan erabiltzen dutenei gehienbat dago zuzenduta. Haien lana askoz erraztuko du, eta deserosoak diren kargadore portatilik guztiz baztertuta geratuko dira produktu honekin.